



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko azaroaren 28a

40. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-23/MOC-00079. Mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita alda dezan anbulantziatzko osasun-garraioa probintzia arteko lekualdatzeetarako erabiltzeari buruzko jarraibidea. Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkeztu du (3. or.).
- 11-23/MOC-00080. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lidergo argia gauza dezan gure ekonomia eta etorkizunarentzat estrategikoak diren sektoreen garapenaren plangintzan eta zuzendaritzan. Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztu du (4. or.).
- 11-23/MOC-00081. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ekimen adostuak bultzatzen dituzan lanaldia murrizteko proiektu berritzaileak abian jartzeko saiakuntzak egiteari begira. Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 11-23/MOC-00082. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita era aktiboan defenda dezan aniztasun politiko eta soziala gizarte demokratikoaren ezinbesteko oinarri gisa, eta herritarrei dei egiten baitzaie politikan era aktiboan parte hartzera. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (7. or.).
- 11-23/MOC-00083. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita botere-banaketa errespetatzen dezan. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (8. or.).
- 11-23/MOC-00084. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita arau-aldaketa puntuala egin dezan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuan. Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu du (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-23/PES-00102. Galdera, Animalien eskubideak eta ongizatea babesteari buruzko martxoaren 28ko 7/2023 Legeak indarra hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-23/PES-00104. Galdera, Erriberriko Udalarari banku bat ortzadarraren koloreez margotzeko baimena ukatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-23/PES-00105. Galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako burutzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

- 11-23/PES-00106. Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen erregelamendu-garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-23/PES-00107. Galdera, uztailean “Kapital transferentziak NUPera: Medikuntzako eraikina” izeneko G10001-G1100-7455-322302 partida 1.906.863 € murriztu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- PTC20230097. Mahaiaren erabakia, Nafarroako Emakumezkoen Kirolari Nafarroako Parlamentuaren Domina ematekoa (17. or.).
- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (18. or.).
- 11-23/ELC-00012. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (18. or.).
- 11-23/ELC-00013. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (19. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-23/MOC-00079. Mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua pre- miatzen baita alda dezan anbulantziatzko osasun-garraioa probintzia arteko lekualdatzeetarako erabiltzeari buruzko jarraibidea

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita alda dezan anbulantziatzko osasun-garraioa probintzia arteko lekualdatzeetarako erabiltzeari buruzko jarraibidea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena.

Irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu komunuen zorroa eta hura eguneratzeko prozedura ezartzen ditu, eta VIII. eranskinean jasotzen du osasun garraioa emateko zerbitzu erkideen zorroa, alegia, gaixoak lekualdatzea, soil-soilik arrazoi klinikoengatik, beren egoerak ohiko garraioak erabiltzea galarazten dienean.

Errege-dekretu horren 4. artikuluan jasotzen da pazienteak autonomia-erkidegoen artean lekualdatzea, eta ezartzen da beste autonomia-erkidego batera aldi baterako lekualdatu den paziente batek bertan larrialdiko osasun laguntza jasoz gero, pazientearen jatorrizko erkidegoaren kargura izango dela osasun garraioa hura jatorrizko erkidegora ekartzeko, dela bere etxera dela beste osasun zentro batera, betiere arrazoi mediko hutsengatik.

Nafarroan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zuzendari kudeatzailearen ekainaren 1eko 9/2023 Jarraibideak gure Foru Komunitatean jarduteko gidalerroak ezartzen ditu, anbulantziatzko osasun garraioa probintzia arteko lekualdatzeetarako erabiltzeari dagokionez. Jarraibide horren bigarren puntuan zehazten da nola jardun paziente nafarren lekualdatetarako egiteko, hau da, Nafarroan osasun-laguntza eduki eta beste autonomia-erkidego batean ospitaleratuta egonda Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bideratu ez dituenak. Hori horrela, kasu horietarako agindua da Nafarroara lekualdatzea bakarrik baimenduko dela pazienteak klinikoki egonkor badago, ospitaleratzea eragin zuen egoera gainditu bada eta lekualdatzeak ez badu arriskuan jartzen haren osasuna; era berean, azaltzen da lekualdatze-mota horiek laguntzarik gabeko anbulantzia batean eginen direla nahitaez.

Hala ere, kasu zehatz batzuetan gerta daiteke pazienteak egonkor egotea eta lekualdatetarako haren osasunerako arriskurik ez izatea, baina hartutako sekuelen ondorioz laguntza-anbulantzia bat behar izatea pazienteak etxera edo gure Foru Komunitateko beste zentro sanitario batera lekualdatzeko.

Hori dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkeztu dugu:

• Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du probintzia arteko lekualdaketa-arte arazoak erabiltzeko buruzko jarraibidea alda dezan, kasuaren balorazio medikoa egin ondoren, aukera egon dadin laguntza-anbulantzia batean lekualdatzeko

gure Foru Erkidegotik kanpo dauden eta Nafarroara itzuli nahi duten pazienteak.

Iruñean, 2023ko azaroaren 21ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-23/MOC-00080. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lidergo argia gauza dezan gure ekonomia eta etorkizunarentzat estrategikoak diren sektoreen garapenaren plangintzan eta zuzendaritzan

MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lidergo argia gauza dezan gure ekonomia eta etorkizunarentzat estrategikoak diren sektoreen garapenaren plangintzan eta zuzendaritzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Garrido Sola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena.

2008ko krisiaren eta "austerizida" deitu ohi zaion horren kudeaketaren porrotaren ondoren, agerian geratu zen liberalismo dogmatikoak ezin zuela kudeaketa egokia egin ez ziklo ekonomikoaren goranzko etapetan ez beheranzko etapetan. Ikaskuntza horren ondorioz, Europan, COVID-

19aren eta Ukrainako inbasioaren ondoriozko krisiak erabat desberdin kudeatu dira, eta emaitza ere oso desberdina izan da.

Hala eta guztiz ere, krisi honetan agerian geratu dira zuzendu beharreko hutsune argi batzuk. Hornidura-kate globala apurtu zenean, gure industria hornidurarik gabe geratu zen; gaitasun industrialik ez zegoenez, ezin izan genuen geure burua oinarritzeko elementuz hornitu, esaterako, NBE edo arnagailuz; eta Ukrainako inbasioak ale-falta ikaragarria eragin zuen, baita nekazaritzako elikagaien katean ezinbestekoak diren beste produktu batzuen ere, eta horren ondorioz prezioak izugarri igo ziren, sektore osoa arriskuan jarritz. Horri gehitu behar zaio teknologia-lehiari dagokionez Europak duen atzerapen orokorra, Estatu Batuak eta Txina arlo horretan hegemonia lortzeko elkarren aurka ari diren bitartean.

Gogoeta horren ondorioz, zorraren lehen mutualizazioa antolatu zen Europan, eta, horri esker, NGEU funtsak sortu ziren. Funts horien helburua da botere publikoek estatu kideen eta horiek osatzen dituzten lurraldeen modernizazio ekonomikoa eta soziala sustatzea, bai eta sektore estrategikoak bultzatzea ere, etorkizunean garatu daitezkeen.

Politika ekonomikoaren paradigma-aldaketa eta horren arrakasta material agerikoa oinarri hartuta, eta krisi horretan agerian jarritako hutsuneei erantzuteko asmoz, honako erabaki-proposamen hau proposatzen dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lidergo argia egin dezan gure ekonomiaren eta gizartearen etorkizunarentzat estrategikoak diren sektoreen garapenaren plan-

gintzan eta zuzendaritzan, bere eskumen-eremuan burujabetza estrategiko handiagoa sustatuz.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du garapen-eredu argi bat ezar dezan, berdintasunean, inklusioan eta gizarte ongizatean, ingurumen-jasangarritasunean eta lurralde-koehesioan oinarritua.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du tresnak sor ditzan eta egun daudenak garatu ditzan, parte hartzeko eta zuzenean erabakitzeko ahalmena izate aldera gure ekonomiaren eta gizartearen etorkizunarentzat estrategikoak diren sektoreetako eragile giltzarrietan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: José Miguel Garrido Sola

11-23/MOC-00081. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ekimen adostuak bultzatzen dituzan lanaldia murrizteko proiektu berritzaileak abian jartzeko saiakuntzak egiteari begira

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ekimen adostuak bultzatzen dituzten lanaldia murrizteko proiektu berritzaileak abian jartzeko saiakuntzak egiteari begira.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko eledun Carlos Guzmán Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena.

Joan den urriaren 10ean (asteartea), Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordean, Nafarroako Langile Komisioak sindikatuaren ordezkartza batek azaldu zituen “Análisis y estudio de la promoción de estímulos económicos para las empresas que establezcan medidas de

reducción del tiempo de trabajo, limitaciones de jornada, reducción de horas extras, etc.” txostenaren ondorio interesgarriak.

Aipatu txostenean, zehazten zen Nafarroan pertsona okupatuaren artean 23.050 (% 7,9) lanaldia murrizteko prest daudela, murrizketari lotutako soldata-galera beren gain hartuz eta produktibitate-maila berari eutsiko zaiola bermatuz. Era berean, LKren txostenak zehazten zuenez, herrialde honetako langileen % 62k, aukera izango balute, 4 eguneko lan-aste bat hautatuko lukete, soldata-galera beren gain hartu gabe, baina produktibitate-maila berari eutsita. Gure koalizioaren ustez, datu zabal horiek hausnarketa sakona egitera eraman behar gaituzte.

Historian zehar, industrializazio-teknikak eta -prozesuek aurrera egin ahala, eta produktibitate ekonomikoa eta lan-produktibitatea modu korrelatiboan hobetu ahala, lanaldiaren iraupena murrizten joan zen, alderantzizko proportzioan.

Hala ere, gizarte modernoan azken hamarkadetan aurrerapen zientifiko-teknologiko oso azkarak gertatu diren arren, gure herrialdean, lanaldia murrizteko pixkanakako prozesua geldirik dago duela 40 urte baino gehiagotik.

Gure herrialdeko sindikatu guztiek onartzen dute azken urteotan joera-aldaketa bat nabaritu dutela, hitzarmenen negoziazio kolektiboko prozesuetan ikus daitekeena. Duela urte gutxi batzuk soldata-baldintzak etengabe hobetzeko zegoen asmo gaindiezinaren aurrean, gaur egun, hitzarmen bat negoziatzerakoan, langileek gero eta maizago ezartzen dute lehentasun gisa lanaldia murriztea.

Gure ingurune geografiko eta ekonomikoko herrialdeekin alderatu beharko genuke, eta horiei dagokienez, esan dezakegu gaur egun, Espainian, langile batek, batez beste, Frantzia baino 150 ordu gehiago lan egiten duela urtean, edo Alemanian baino 300 ordu gehiago. Hau da, 8 orduko lanaldietan, urtean ia 19 lanegun gehiago Frantziarekin alderatuta, edo 37 lanegun gehiago Alemaniarekin alderatuta.

PSOEn eta Sumar-en artean koalizio-gobernu bat eratzeko sinatu berri den programa-akordioak apustu irmoa jasotzen du lanaldia asteko 37 ordu eta erdira murrizteko, soldata-murrizketarik gabe. Valentziako Generalitateko Gobernuak – arlo horretan aurretik doa– lan-astea 4 egunetara murrizteko programa eta esperientzia pilotuak abian jarri ditu jada, eta emaitza arrakastatsuak izan ditu.

Nafarroako Egungo Gobernua babesten duen akordio politiko-programatikoak honako hau jasotzen du:

“Itunpeko ekimenak abian jartzea, lan-denbora murrizteko proiektu berritzaileak abiarazteko saia-

kerak egin daitezten enpresaren esparruan (4 eguneko astea edo lanaldia murriztea), telelanaren ereduak, kontziliaziokoak eta enpresen kudeaketa ekonomikoa eta lanekoa demokratizatzeak”.

Lanorduak murriztea gizarte gisa aurre egin behar diogun erronka handietako bat da. Nafarroako Gobernuak, bere eskumenen esparruan, erronka horri ere aurre egin behar dio, xede hartuta gutxiago lan egitea guztiok lan egin ahal izateko, eta, aldi berean, hobeto eta zoriontsuago bizi ahal izateko.

Erabaki-proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, ahalik eta lasterren itunpeko ekimenak abian jar ditzan, lan-denbora murrizteko proiektu berritzaileak abiarazteko saia-kerak egin daitezten enpresaren esparruan (4 eguneko astea edo lanaldia murriztea).

Iruñean, 2023ko azaroaren 22an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-23/MOC-00082. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita era aktiboan defenda dezan aniztasun politiko eta soziala gizarte demokratikoaren ezinbesteko oinarri gisa, eta herritarrei dei egiten baitzaie politikan era aktiboan parte hartzera

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita era aktiboan defenda dezan aniztasun politiko eta soziala gizarte demokratikoaren ezinbesteko oinarri gisa, eta herritarrei dei egiten baitzaie politikan era aktiboan parte hartzera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita era aktiboan defenda dezan aniztasun politiko eta soziala gizarte demokratikoaren ezinbesteko oinarri gisa, eta herritarrei dei egiten diezaie politikan era aktiboan parte hartzera. Eta mozioaren jarraipena Memoria eta Bizikidetzeta, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak egin dezala.

Zioen azalpena.

Demokrazia Espainiara itzuli aurretik ere, Nafarroako gizarte gehien-gehiena demokraziaren oinarri diren balio eta printzipioen aldekoa zen: herri-subiranotasuna, herritarren parte-hartzea, konkordia, tolerantzia, zuzenbidearen nagusitasuna eta aniztasun politikoa. Soilik atxikimendu horri esker finkatu ahal izan zen hain azkar erregimen demokratikoa. Lau hamarkada baino gehiago

igaro ondoren, nafarrak –eta Espainiako herritar guztiak– harro egon gaitzke gizarte libre batean bizitzeaz eta munduko demokraziarik aurreratuetako bat eraikitzeaz.

Sistema demokratikoak, ordea, etsaiak izan zituen: batez ere, talde terroristak, haien konplize politikoak eta Indar Armatueto sektore minoritario batzuk (1981ean estatu-kolpe bat antolatzeraino iritsi zirenak). Batzuetan, sistema demokratikoaren etsai horiek espazio publiko batzuk konkistatzea eta herrikide askoren bizitza baldintzatzea lortu zuten, askatasunez adierazteko eta politikan parte hartzeko eskubideak mugatuz, eta horrek bizikidetzeta eta demokrazia bera murriztea ekarri zuen.

Nahiz eta anomalia horiek desagertzeko joera izan zuten erregimen demokratikoa finkatu ahala, toki jakin batzuetan (Nafarroako hainbat herri barne, zoritxarrez), eta terrorismoaren iraunkortasunaren ondorioz, ia endemiko bihurtu ziren beldurrazte-egoera eta askatasunak eta eskubide konstituzionalak baliatzeko bermerik eza.

Zalantzarik gabe, joera abertzale eta sozialista zuen terrorismoa desagertzeak bizikidetzaren hobekuntza nabarmena ekarri zuen, bereziki mehatxupean bizi ziren pertsonen bizitzetan. Baina, aurrerapen hori gutxietsi gabe, terrorismoa politikoki eta logistikoki babestu zuten sektore politikoen autokritikarik ezak, hain zuzen, ekarri du horiei aurre egin zieten eta, horregatik, erasoak eta mehatxuak jasan zituzten herritar askoren artean mesfidantza eta beldurra iraunaraztea. Gainera, sektore horien propagandak eta ekintza politikoak askotan aurkaria iraintzen eta demonizatzen jarraitu dute, bai eta terroristak heroi nazional eta sozial gisa gurtzeari eusten ere. Horren guztiaren ondorioz, gure geografiako zenbait herritan, enpirikoki egiaztatu daiteke pluralismorik gabeko giroa dagoela, eta bertan bizi diren herritar askoren bizitza politiko aktiboa uzkurto egin dela.

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du era aktiboan defenda dezan aniztasun politiko eta soziala gizarte demokratikoaren ezinbesteko oinarri gisa.

Nafarroako Parlamentuak Bake eta Bizikidetz, Euskara eta Kanpo Ekintzako Departamentua premiatzen du Nafarroako unibertsitateekin egindako lankidetz-hitzarmen baten bidez ikertze aldera Nafarroako zenbait herritan dagoen aniztasun politiko eta sozial eza, muturreko taldeek jarduera terroristak oroitzearen eta aurkari politikoa demoinizatzearen ondorioz.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako herritarak animatzen ditu Konstituzioak eta legeek aitortutako askatasun politikoak modu aktiboan erabiltzera eta bizitza politikoan aktiboki parte hartzera, batez ere udal-esparruan, hautagaitzetan libreki parte hartuz, beren ideien arabera eta errespetu-eta tolerantzia-giroan.

Iruñean, 2023ko urriaren 23an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

11-23/MOC-00083. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita botere-banaketa errespetatzen dezan

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita botere-banaketa errespetatzen dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 219. artikuluan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, 2023ko azaroaren 30eko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko: Botere-banaketa eta oinarritzko izaera estatu demokratiko batean

Espainiako Konstituzioak 1.1 artikuluan finkatu zuen Espainia estatu demokratiko gisa eratzten dela, oinarri hartuta botereen banaketa duen sistema bat: exekutiboa, legegilea eta judiziala. Konstituzioaren esparrutik abiatuta, hainbat maila-tako arau askok arautzen dute hiru botereetako

bakoitza osatzen duten erakundearen existentzia, osaera eta funtzionamendua.

Botere-banaketarekiko errespetua funtsezkoa da sistema politikoak gure herrialdean duen legezko oinarri gisa funtziona dezan, baina gaur egun, praktikan, Gobernua etengabe eta gero eta gehiago mespretxatzen ari da botere-banaketaren printzipioa.

Era berean, Espainiako Konstituzioaren 23. artikulua gure Konstituzioak bermatzen duen oinarritzko eskubide bat finkatzen du, parte-hartze politikorako eskubidea sistema demokratikoaren testuinguruan irudikatuz, 1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Demokrazian, erabakigarria da nabarmentzea politikariek ordezkarien eta ordezkatuaren arteko bitartekari gisa jardutea erakundeetan, eta gobernuaren lana kontrolatzeko baliagarriak izatea. Subiranotasuna egikartzeko funtsezko forma horrek harreman estua ezartzen du, beraz, Estatu demokratikoaren esparruan, parte-hartze politikorako eskubidearekin.

Kontrol parlamentarioak, izaera juridikoa izan beharrean, izaera politikoa du, taldeek eta alderdiek osatutako eragile politikoen esku baitago, gizartearen kontura protagonismoa hartzen dutenak.

Horrela, botere publikoen gehiegikeriak, irregulartasunak eta arbitrariotasunak saihestu nahi dira. Horretarako, gardentasunez jardun behar da, Gobernuaren kudeaketa ebaluatu ahal izateko. Kontrol hori gobernuaren jarduna Legebiltzarrean zaintzeko, azaltzeko, eztabaidatzeko eta ebaluatzeko jardura gisa identifikatu da; oposizioko gut-

xiengoek egiten dute lan hori, eta horregatik dira garrantzitsuak sistema konstituzionaletan eta demokratikoetan.

Hori horrela, azaldutakoaren babesean;

Bakarra. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du botere-banaketa errespetatuz.

Iruñean, 2023ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-23/MOC-00084. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita arau-aldaketa puntuala egin dezan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuan

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita arau-aldaketa puntuala egin dezan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordean izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena.

Argi dago Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuak, zeinaren testu bategina 1993koa baita, erreforma orokor bat behar duela arau hori XXI. mendeko Administrazio baten eskakizunetara egokitzeko.

Estatutuak arautzen dituen gai asko gaudituta daude gaur egun; besteak beste, langileak maile-

tan kokatzea 1999ko Bolonia Plana baino lehenagoko titulazioen arabera.

Beraz, Langileen Estatutuaren erreforma gero-erazina da, baina Nafarroako Gobernuak oraindik ez dio heldu. Erreforma abian jarri ondoren, denbora-tarte bat beharko da erreforma eraginkorra izan dadin.

Hori gertatzen den bitartean, lanpostu jakin batzuetan, langileek beste lankide batzuen titulazio bera eta eginkizun berberak izanda, bidegabe ki soldata desberdinak dituzte, Administrazioak plazak definitzeko orduan hartutako erabaki baten ondorioz. Horien artean daude enpresen administrazioan eta zuzendaritzan, ekonomian, enpresa-zientzietan, aktuariotza- eta finantza-zientzietan, ikerketan eta merkatuko teknikan edo kontabilitate- eta finantza-teknikan graduatuak edo lizentziatuak, enpresa-zientzietan diplomadun plaza bat, B mailakoa, betetzen dutenak; hain zuzen, horiek funtzio berberak edo antzekoak betetzen dituzte Administrazio publikoko teknikarien (arloan ekonomikoa) lanpostuetan, A mailakoak, titulazio bera duten lankideek dituztenekin alderatuta.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aldaketa puntual bat egin dezan Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuan –beste bat onesten ez den bitartean– Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren enpresa zientzietako diplomadunen ordainsariak parekatu ahal izateko Administrazio bereko administrazio publikoko teknikariek (arloan ekonomikoa) dituztenekin, baldin eta titulazio bera badute eta zeregin berberak edo antzekoak betetzen ari badira.

2. Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Batzordea adieraztea mozioaren jarraipena egiteko Batzorde gisa.

Iruñean, 2023ko azaroaren 23an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

F saila:
GALDERAK

11-23/PES-00102. Galdera, Animalien eskubideak eta ongizatea babesteari buruzko martxoaren 28ko 7/2023 Legeak indarra hartzeari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Animalien eskubideak eta ongizatea babesteari buruzko martxoaren 28ko 7/2023 Legeak indarra hartzeari buruzkoa. Galdera 2023ko irailaren 29ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urriaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-23/PES-00102 informazio eskaera egin du, Animalien eskubideak eta ongizatea babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legeari buruzkoa. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

7/2023 Legea Estatuaren esparruko legea da, eta hau du xedea: "Lurralde osoan araubide juridikoa ezartzea itxian dauden animalia basatiak eta konpainia animaliak babesteko eta beren eskubideak eta ongizatea bermatzeko".

Nafarroako Foru Komunitateak 19/2019 Foru Legea eman zuen, Nafarroak nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloan dituen eskumen eskusiboen babesean, ekonomiaren antolamendu orokorrekin bat (Nafarroako Foru Erantza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 50.1

artikulua). Estatuak, berriz, jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren arloan, osasunaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren arloan eta ingurumenari buruzko oinarritzko legeriaren arloan dituen eskumen eskusiboen arabera ematen ditu artikuluko gehienak.

Araudi biak aztertuta, ondorioztatzen da Estatu legearen artikuluko gehienek erregelamendu bidezko garapena eskatzen dutela, eta, beraz, ez dela berehala aplikatzekoa izanen. Garapen hori egiten ez den bitartean, zuzenean aplikatuko da gai horiek arautzen dituen foru araudia, eta, horrek egiten duen moduan, hargatik eragotzi gabe gerora egokitzea.

Herritarren artean dagoen nahasmenduaren aurrean, eta albiste kontrajarriak eta jasotako kontsultak ugariak direnez, Animalien Ongizatearen Atala komunikazio-eredu bat eratzen ari da, Estatu legeari eta Nafarroan aplikatu beharreko alderdiei buruz egiten ari den txosten juridikoa amaitu ondoren erabiliko dena.

Azaldutako arrazoiengatik, eta Estatu legearen xedapenek epe labur eta ertainean aplikazio praktikoa eskasa dutenez, une honetan ez da egozia Estatu lege berriari buruzko prestakuntza ekintzak egitea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko urriaren 18an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-23/PES-00104. Galdera, Erriberriko Udalari banku bat ortzadarraren koloreez margotzeko baimena ukatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Erriberriko Udalari banku bat ortzadarraren koloreez margotzeko baimena ukatzeari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 6ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00104); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Hil honen 23an, LAIAK Erdialdeko LGTBiQ+ kolektiboaren IV. sariak eman ziren Tafallako Kulturegunean.

Ekitaldian jakin genuenez, Nafarroako Gobernuak –Vianako Printzea Erakundea-Kultura Departamentuak– ez dio Erriberriko Udalari baimenik eman plazako bankuetako bat ortzadarraren koloreez margotu dezaten, LGTBiQ+ kolektiboak askatasunaren, duintasunaren eta errespetuaren alde daraman borrokaren aldeko sinbolo gisa.

Ortzadarraren bandera AEBetan diseinatu zuen eskubide zibilen aldeko artista plastiko eta ekintzaile Gilbert Baker-ek, eta aniztasunaren sinbolo bihurtu zen 1978tik aitzina. Horregatik, honako galdera hauei idatziz erantzutea eskatzen dut:

1.- Egia al da Vianako Printzea Erakundeak Erriberriko Udalari ukatu egin diola plazako banku bat ortzadarraren koloreez margotu ahal izatea?

Horri dagokionez, orain arte ez da Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuan Erriberriko Udalaren inongo eskaera ofizialik jaso helburu horretarako.

2.- Vianako Printzea Erakundea zerk eraman du jarrera hori hartzera?

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusian ez da inolako jarrerarik jaso gai honi buruz.

3.- Nafarroako Berdintasunerako Institutuak izan al du uko horren berri?

Zergatik ez da saiatu zuzentzen berdintasunaren eta aniztasunaren aldeko borroka irudikatzen duen sinbolo hori gutxiesten duen erabaki hori? Nafarroako Berdintasunerako Institutuak inoiz eskatu al dio Vianako Printzea Erakundeari baimena eman zezan banku hori margotzeko?

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak (NABI) ez du galderaren gaiari buruzko komunikaziorik jaso inongo bide ofizialetatik.

4.- Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuaren ustez, banku hori ortzadarraren koloreez margotzearen kasuan –horrek esan nahi duenarekin– amore eman beharko al litzateke Vianako Printzea Erakundearen iritziaurrean, zeinen arabera bankua margotuko balitz eraso eginen baillitzaioke Erriberriko Multzo Historikoak erakusten duen kultura-intereseko ondasunari?

Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuak adierazi du bateragarri egin nahi dituela, ahal den guztietan, kultura-intereseko ondasun izendatutako elementu ororen babes egokia eta LGTBi+ eskubideen aldarrikapen bidezkoak diren arte adierazpen sinbolikoak, esaterako ortzadarraren koloreak dituen bandera erabiltzea eremu publikoan.

5.- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik, Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuaren bitartez ala Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez zuzentzeko berdintasunaren eta sexu-aniztasunaren aldeko borrokan ortzadarraren koloreek irudikatzen dutenaren aurkako eraso hori? Zer neurri hartuko du Erriberriko Udalak aipatu kolorez banku bat margotu ahal izan dezan Erriberriko Multzo Historikoaren barruan?

Aurreratu den bezala, ez da inolako erabakirik jaso gai honi buruz. Hala ere, Nafarroako Gobernuak aintzat hartzen du sexu eta genero aniztasunaren gaineko gogoeten pluralitasuna, bai eta hura aldarrikatzeko balio duen edozein adierazpen ere. Horregatik, adierazi zen bezala, proposatu den gobernantza berriaren ataletako bat da legegintzaldi honetan mamitzen jarraitzea Nafarroako udalen sarearen barruan toki entitateek LGTBifobiaren aurka egin duten apustua eta, halaber, LGTBI zuzendariorde eta sendotzea zerbitzu integralaren bitartez.

Hori guztia, ezertan gutxietsi gabe kultura-intereko ondasunak ukitzen dituzten kasuetan erabili behar den zorroztasun juridikoa (Nafarroako Kultur-ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legea). Gainera, hizpide dugun kasuan, gogoratu behar da badela gaiari buruzko udal araudia (barne eraberritze eta babeserako plan berezia).

6.- Nafarroako Gobernuaren izenean zergatik ez zen inor joan LAIAK Erdialdeko LGTBiQ+ kolektiboaren sari-banaketara, berariaz gonbidatuta egon arren?

Hasiera batean NABIk berretsi zuen zuzendari kudeatzailea joanen zela sari-banaketara. Zoritxarrez, ezusteko eta saihestu ezinezko arrazoiengatik, ezin izan zen joan, ez bera, ez beraren ordezkorik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2023ko urriaren 25ean

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-23/PES-00105. Galdera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako burutzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako burutzei buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 6ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, oinarrizko gizarte zerbitzuetako burutzen sorrerari buruz (11-23/PES-00105). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

Agerraldi horretan aipatu da koordinaziorako figuren eta burutzen presentzia arautu eta ezarri beharra dagoela oinarrizko gizarte zerbitzuetan, ezinbestekoak baitira gizarte zerbitzuetako oinarrizko laguntza berrorientatzeko prozesua egokiro bete ahal izateko. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen 29. artikulua dioenez, oinarrizko gizarte zerbitzuak gizarte zerbitzuen sistema publikoko oinarrizko unitatea dira, eta toki entitateei dagokie haien titulartasuna. Horregatik, eta figura horiek gizarte zerbitzuetako lantalde profesionaleko parte direlako, toki entitateen menpean jarri dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko urriaren 25ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-23/PES-00106. Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen erregelamendu-garapenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen erregelamendu-garapenari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 6ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitatu zen.

Iruñean, 2023ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-23/PES-00106):

Zertan da Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriko alderdi bakoitzaren erregelamendu bidezko garapena, sei hilabeteko epeari begira?

Hori dela-eta, hona Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Nafarroako Foru Komunitatean familia gurasobakarrak egiaztatzeari buruzko otsailaren 7ko 5/2019 Foru Legeak xede hau du, bere 1. artikuluen arabera: zehaztea zer baldintza bete behar diren familia gurasobakarraren izaera edo gurasobakartasun-egoerako familiaren izaera aitortzeko, eta familia horientzako laguntzak ezartzea.

Azken xedapenetako lehenengoak hau dio: “Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako Departamentuak, zeinak familiaren arloko eskumena baitauka, sei hilabeteko epean emanen ditu foru lege honetan ezarritakoa aplikatu eta garatzeko behar diren erregelamendu-xedapenak”.

Familia gurasobakarraren titulua aitortzeko eta emateko prozedura lege horren III. kapituluan azaltzen da berariaz.

Familia gurasobakarrei eta gurasotasun-egoerako familiei aitortzen zaizkien onurak, kasu

gehienetan, araua erregelamendu bidez garatu beharrik izan gabe jarri dira martxan:

– Unibertsitateaz kanpoko hezkuntzako babes ekintza. “Unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren etapa guztietan, familia gurasobakarrei edo gurasobakartasun-egoeran daudenei berariazko baremoak aplikatuko zaizkie liburu, eskola-material, jantoki eta garraiorako laguntzak eta beka ematerakoan”. Salbuespenerako edo % 50eko hobarirako eskubidea dute zenbait tasa edo prezio publikotan eta tarifatan. Esaterako, Hezkuntza Departamentuaren menpean ikasketa arautuak ematen dituzten ikastetxe publikoek tituluak eta ziurtagiriak eman edo tituluak konpultsatzen dituztenean. Era berean, tratamendu berezia dute bekei dagokienez, eta tarifa txikiagoak Nafarroako Gobernuaren 0-3 urteko haur eskoletan.

Halaber, 33/2021 Foru Dekretuan (apirilaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko arauak ezartzen dituena), ikastetxea aukatzeke lehentasunezko irizpidetzat jotzen da familia gurasobakarra izatea.

– Unibertsitate hezkuntzako babes ekintza. “Nafarroako Gobernuak erregelamenduz garatuko ditu familia gurasobakarren edo gurasobakartasun-egoeran dauden familien unibertsitate-hezkuntzarako laguntzak. Familia horiek beka bereziak izanen dituzte irakaskuntzako, joan-etorrietako eta ostatuko gastuak ordaintzeko”. Derrigorrezko hezkuntzaren ondoren unibertsitateaz kanpoko ikasketak edo unibertsitate ikasketak egiten dituzten ikasleentzat 600 euroko kenkaria dago familia bakoitzeko, gurasobakartasuna aitortuta daukaten unitateetan. Nafarroako Gobernuaren unibertsitate beketan ere, familia bakoitzeko 600 euroko kenkaria dute gurasobakartasuna aitortuta daukaten unitateek.

– Hobari-sistema. “Nafarroako Gobernuak gizarte-etxe, aterpetxe, toki-kanpaleku eta aisia-jardueren tarifetarako hobari-sistema bat garatuko du familia gurasobakar edo gurasobakartasun-egoerakoentzat, bai eta Nafarroako Administrazio Publikoen mendekoak izan eta Foru Komunitatean garatzen diren ondasun kultural eta kirol- eta aisia-jardueretarako irispidea izateko ere”. Udal batzuek dagoeneko beren ordenantza fiskaletan tarifetako deskontuak ezarri dituzte musika esko-

letan, gizarte etxeetan, udalaren kirol instalazioetan eta antzeko zerbitzuetan.

– Hobariak garraio publikoan eta eskolakoan. “Garraio publikoaren eta eskola-garraioaren erabilerarako hobariak aurreikusiko dira familia gurasobakarren edo gurasobakartasun-egoerako kideentzat”. Oraindik ezin izan da egin erregelamendu bidezko garapena, Nafarroako Gobernuak zailtasunak dituelako balizko deskontuak garraio publikoaren ardura duten enpresekin kontratatzeko modua antolatzeko.

– Neurri sozialak eta osasun arlokoak. “Nafarroako Gobernuak familia gurasobakarrentzako edo gurasobakartasun-egoeran dauden familientzako laguntzak edukiko ditu ortodontziako, entzumeneko, oftalmologiako, ortopediako, psikologiako, pedagogiako edo etxez etxeko laguntza zerbitzuetako tratamenduen ondoriozko gastuei aurre egiteko”. Familia gurasobakarrek laguntza horietarako eskubidea dute familia ugarietarako bezala. Eskubide Sozialetako Departamentuak laguntzen deialdia egin du foru agindu baten bidez (159/2020 Foru Agindua, familiaren esparrurako zenbait laguntza emateko oinarri arautzaileak onesten dituen 2020tik 2023ra bitarteko urteetarako).

– Etxebizitza arloko babes ekintza. “Babes ofizialeko etxebizitzaren adjudikazioetan, zeinetan aginduzkoa den deialdi publikoa ateratzea eta baremoak aplikatzea, berariaz puntuatuko da eskatzailea familia gurasobakarra edo gurasobakartasun-egoeran dagoen familia izatea”. Gurasotasun-egoera Nafarroako Foru Komunitatean lehentasunezko irizpideetako bat da babes ofizialeko etxebizitzak eta prezio tasatuko etxebizitzak adjudikatzekeko baremoetan. Bai eta alokairu sozia-

leko etxebizitzak adjudikatu edo alokairurako laguntzak ematerakoan ere. Gainera, Eskubide Sozialetako Departamentuak familia gurasobakarreri etxebizitzak alokatzea ahalbidetzeko laguntza ekonomikoen deialdia egin du (175/2021 Foru Agindua).

– Neurri fiskalak. “Arlo fiskalean, familia gurasobakarren edo gurasobakartasun-egoerako trataera izanen da Nafarroan araudiak familia ugarietarako aitortzen dien bera”. Nafarroan, familia gurasobakarreri familia ugarien zerga-tratamendu fiskal bera aitortzen zaie. 2019az geroztik, errentaren gaineko zergan, familia gurasobakarren ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik edo hura birgaitzeagatik lehendik kenkaria zuten familiei handitu egin zaie kenkari hori (% 15etik % 30era). Bestalde, familia gurasobakarrek hiri kontribuzioaren kuotan % 90 arteko hobia izan dezakete, etxebizitza ohiko bizilekua dutenean.

– Bestelako onura eta abantailak. “Aurrekoetz gain, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak onura eta abantailak sustatuko ditu “familia gurasobakarra” titulua duten edo gurasobakartasun-egoeran daudenentzako, hala administrazio publikoaren arloan nola enpresa pribatuenean”. Era berean Eskubide Sozialeko Departamentuak familia gurasobakarrentzako laguntzak arautu ditu kontziliazioa sustatzeko (159/2020 Foru Agindua).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko urriaren 25ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-23/PES-00107. Galdera, uztailean “Kapital transferentziak NUPera: Medikuntzako eraikina” izeneko G10001-G1100-7455-322302 partida 1.906.863 € murriztu izanari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, uztailean “Kapital transferentziak NUPera: Medikuntzako eraikina” izeneko G10001-G1100-7455-322302 partida 1.906.863 € murriztu izanari buruzkoa. Galdera 2023ko urriaren 6ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urriaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Mañero López andreak idatziz erantzuteko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Osasun Zientzien Fakultatearen eraikin berria egiteko obren bigarren lizitazioa egin beharra izan zen,

eta horregatik obrak uste baino hilabete batzuk geroago hasi ziren. Ondorioz, 2023. urterako, NUPentzat konprometitutako urte anitzeko gastuaren banaketa aldatu behar izan da.

Hala, NUPentzat konprometitutako gastuaren 37.971.729 euroko guztizko zenbatekoari eutsi bazaio ere, gastua proiektuaren azken ekitaldiarantz lerratu da.

Lerratze hori dela-eta, 2023ko ekitaldian konprometitutako gastuaren zenbatekoa txikiagoa da, 4.258.325 eurokoa hain zuzen.

Ondorioz, zenbateko hori dago baliagarri aurrekontuko G/10001/7455/322302 partidan, “Kapital transferentziak NUPera: Medikuntzako eraikina” izenekoan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko urriaren 26an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Cruz Cigudosa García

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

PTC20230097. Mahaiaren erabakia, Nafarroako Emakumezkoen Kirolari Nafarroako Parlamentuaren Domina ematekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroa kirol jarduera handiko foru erkidegoa da, kirol diziplina ugari egiten baitira bertan. Nafarroan 44 kirol federazio daude, toki-entitateek kirol arloko teknikariak dauzkate, eta kirol-jarduerak antolatzen dituzten ezin konta ahala klub, elkarte eta enpresa daude.

Kirola eta kirol-jarduera, definizioz, oinarri-oinarrizko jarduera da, ikuskera bikoitza daukana: ikuskera soziala eta lehiaketa-ikuskera. Nafarroa lehiaketa arloan gailentzen da; izan ere, kirolari nafarrek Joko Olinpikoetan, munduko txapelketetan nahiz goi-mailako lehiaketetan parte hartu ohi dute. Halatan, Miguel Induráinen ondareak gure erkidegoko kirolarien eta teknikarien lana balioetsi eta saritzeko aukera ematen du, 25 urte bete berri dituen fundazioaren bitartez.

Emakumeak, beste esparru sozial askotan legez, ez ditu kirola egiteko eta kirolean hazteko aukera berberak izan historian zehar. Zoritxarrez, oraindik ere ikus dezakegu badirela jarrera marxistak kirol diziplinetan. Hau da, argi dago kirolean bide luzea dagoela oraindik egiteko berdintasunaren alde.

Baina Nafarroa harro egon daiteke badituelako, oztopoak oztopo, hesiak gainditu dituzten emakumeak, lehiaketan eta arbitrajean; bai eta federazioen nahiz lehiaketen zuzendaritzan eta koordinazioan ere nabarmendu direnak. Urtero-urtero lan egiten ari da oinarritik abiatuta, eta gero eta gehiago dira kirolen bat egiten duten neskatoak.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Foru Komunitatearen eguna ospatzeko ekitaldien kariatara, esker ona eta errekonozimendua adierazi nahi die beren lanaren bidez emakumezkoen kirola hobetzen eta ikusarazten lagundu duten pertsona, entitate eta talde guztiei, eta horregatik, hain zuzen ere, eman nahi dio Nafarroako Parlamentuaren Domina Nafarroako Emakumezkoen Kirolari.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Emakumezkoen Kirolari ematea Nafarroako Parlamentuaren Domina, zeina foru erkidegoko kirol federazioen ordezkariari eta ATEDENA-NAKITEL Elkarteari emanen baitzaie eskura, Nafarroako Foru Komunitatean emakumezkoen kirola hobetzen eta ikusarazten egindako lanaren esker onez. Ekitaldia Osoko Bilkuren Aretan egingen da 2023ko abenduaren 1ean, 10:00etan.

2. Erabaki hau Nafarroako Taekwondo Federazioari eta ATEDENA-NAKITEL Elkarteari helaraztea.

3. Erabaki hau Idazkaritza Nagusiko Prentsa eta Protokolo atalei eta Zerbitzu Orokorrei jakinaraztea.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrek erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau erabakitzen da:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2023ko abenduaren 14ko 17:30era arte** luzatzea.

2. Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00012. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrek erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Alfredo Irujo Andueza jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz Nafarroako Kontseilurako

kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2023ko abenduaren 14ko 17:30era arte** luzatzea.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00013. Nafarroako Parlamentuak aukeratu beharreko Nafarroako Kontseiluko kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrek erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. José Iruetagoiena Aldaz jaunaren kargualdia amaitzearen ondorioz Nafarroako Kontseilura-

ko kontseilukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2023ko abenduaren 14ko 17:30era arte** luzatzea.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

